

MAIATZAREN BATEAN BANDERA MOREAK AIREAN Nor gara langile klasea?

2016eko maiatzaren lehena langile klasearen nazioarteko borroka eguna dugu. Lana, edo hobeki esanda, soldatapeko enplegu duin baten aldeko eskubidearen aldarrikapen eta borroka eguna. Tradizioz, sindikatuek ordezkatu eta defenditzen duten eguna. Emakumeek enplegu eta bizi baldintza duin batzuen aldeko borrokan beti tinko jardun izan gara lan merkatu formaletik, honen bazterretatik eta, batez ere, honetatik kanpo.

Ukaezinak dira gaur egun lan merkatuak eta lan harremanek orokorrean bizi duten prekarizazio basatia, babeserako tresna kolektiboen ahultzea eta lan harremanen indibidualizazioa tarteko. Egoera honen aurrean ondorioak bestelakoak dira gizon zein emakumeontzako. Eta logikoa denez, honek antolaketa kolektiboa eta borroka sutsua eskatzen du.

Honen aurrean, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxatik, gure irakurketa propioa plazaratu nahi dugu egun honen kariatara, bi norabideetan: Alde batetik, maiatzaren 1eko borroka egunean gure irakurketa, ikuspegia kontuan hartu dadin exijitzeko, baina baita eraldaketa sozial eta ekonomikoaren alde jarduten dugun subjektuen arteko elkarlana eta aliantzaren aldeko gure apustua azalertzeko ere.

2012ko martxoaren 29ko greba orokorraren deialdian, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxak Euskal Herriko gehiengo sindikalarekin bat egin zuen lan produktibo eta enplegu duinaz gain bestelako lanen greba eguna ere bazela aldarrikatzeko. "Amantalak kalera!" atera genituen bizitzarako ezinbestekoak diren etxeko eta zaintza lanen aitortza aldarrikatuz. Aitortzatik haratago joatea nahi dugu. Etxeko lanei eta zaintzari benetan duten balioa aitortzea beharrezkoa da, eta auzitan jarri behar da haien antolaketa soziala: gizon eta emakumeek berdintasunez egin behar dituzte. Erantzukizun hau jendarte guztiari dagokio. Beraz, berdintasunaren inguruko diskurtsoen erretorika gainditu eta arazoaren errora jo behar dugu, hezkuntza eredu ez ezik kontziliario politikak ere zalantzan jarri, zeren horiek emakumeon rola -bizitzaren sostengatzaileena- bideratu ordez indartu egiten baitute.

Emakumeek esan ohi dugun bezala: lana sobera dugu eta enplegu duina faltan. Lana etxetik kanpo eta lana etxe barruan. Oraindik ere zaintzak eta etxeko lanek nagusiki gure esku jarraitzen dute. Alegia, lan merkatu ez ofizialean, ez arautuan eta ez errekonozituan dihardugunak gu gara. Lana gainezka daukagu; kalitatezko bizitza eta enplegua nahi ditugu, emakume guztioi autonomia, eskubideak eta prestazioak bermatzeko.

Eta XXI. mendeko kapitalismo neoliberallean ezagutzen ari garen aldaketa prozesu anitzak kontuan izanda (langabeziaren igoera, 3. sektorearen suntsiketa, ezkutuko ekonomia...), egun, langile klaseaz aritzean, berau fabrikako menpekotasunik gabeko gizon heterosexual zuri batzuek soilik ordezkutzen al dute? Hortaz, langile klasearen berdefinizio baten beharra azpimarratu nahiko genuke, zeinetan, langile izaera esleituko zaion aberastasuna, balioa, prestigioa, zaintza, bizitzaren mantentzera bideratzen diren jarduera guztiei, hauek soldatapekoak izan edo ez. Kapitalismoa eta heteropatriarkatua txanpon beraren bi aurpegiak dira. Eredu jasanezin bat osatzen dute, pertsonen eta Lurraren, eta batik bat emakume-gorputzaren menperatzean eta esplotazioan oinarritua. Adierazpide ugari ditu, eta era desberdinean eragiten digu testuinguruaren zein faktoreen arabera: jatorria, klasea, adina, hautu sexual-afektiboa, etnia, etab. Aliantza heteropatriarkal-kapitalista honi erroitik

egin behar zaio aurre, sistema kapitalistak berarekin batera daraman krisiaren logika alde batera utzita.

Emakume migranteak, bollerak, transexualak, aniztasun funtzionala dugunak, soldatapeko langileak, baserritarrak, prekarioak, langabetuak, adin desberdinetako emakumeak, jatorri desberdinetakoak, hirietakoak, herrietakoak, etab. biltzen dituen Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxa honek jendarte eredu berri bat eraikitzen ari diren subjektu politiko kolektibo desberdinen arteko aliantzan sinesten du feminismoak, aldarri nagusi izaki. Gure arteko aniztasun eta desberdintasunen jakitun gara, baina argi daukagu aldaketa garai honetan, feminismorantz aldaketa egiteko elkartu eta noranzko berean eragiteko garaian gaudela. Begirada bakar edo urriko borrokek ez dute benetako askatasunik ekarriko. Ezinbestekoa da borroka desberdinak eta hauen arteko erlazioa aintzat hartzea, benetako eraldaketa nahi badugu. Horregatik, bandera moreak astintzen ditugu elkarrekin, trapu soilak izan ez daitezzen.

Horrenbestez, bizi ereduaren talka baten aurrean aurkitzen gara: batetik, egun bizi dugun jendarte ereduak, bere ezaugarriekin: produktibitatea, kapitala, lehiakortasuna, denboraren jabetza eza, zaintza lanen gutxiespena, murrizketak... Bestetik, bestelako eredu baten aldeko imajinario eta jardunbidea: Honek produktibitatea eta erreproduktibitatearen aitortza lehenesten du, bizitzari duen balioa aitortzen dio, ezaugarritzat elkartasuna du, denboraren jabetza ahalbidetzen du eta zaintza-lanen balioespina onartuko du. Talka honetan, trantsizio prozesu baten aurrean gaude, zeinetan egungo egoerari erantzuteko neurriak, borrokek aktibatu eta behar material, afektibo eta zaintza lanak asebetu behar ditugun. Eta bide beretik, eztabaida teorikoetan sakontzen eta eguneroko praktikak aldatzen joan behar gara epe ertain-luze baterako anbizio eta erronka kolektiboak.

Maiatzaren 1ean feminismoak eta sindikalismoa beharrezkoak ditugulako, bizitza eta kapitalaren arteko talkan bizitza duinen aldeko apustua egiten dugulako, altxa ditzagun bandera moreak airean!

2016ko apirilean,

EUSKAL HERRIKO MUNDU MARTXAREN PLATAFORMA



EL 1 DE MAYO ONDEAMOS LAS BANDERAS MORADAS ¿Quiénes somos la clase trabajadora?

El 1 de mayo es el día internacional de la lucha de la clase trabajadora. El día en el que se reivindica el trabajo, o mejor dicho, el derecho a un empleo digno remunerado. Un día que ha sido representado y defendido tradicionalmente por los sindicatos. Las mujeres hemos estado al pie del cañón y luchado por unos derechos laborales y condiciones de vida dignas, tanto desde el marco laboral convencional, como desde sus márgenes, y sobre todo, al margen de éste.

La brutal precariedad que acecha tanto al mercado laboral como a las relaciones laborales ha debilitado las herramientas colectivas de protección y promovido la individualización de las relaciones laborales. Obviamente, esta situación afecta de forma desigual a mujeres y hombres. Por lo que urge generar estrategias colectivas que nos permitan encabezar la encarnizada lucha que la situación requiere.

Por todo esto, desde la Marcha Mundial de Mujeres de Euskal Herria, queremos dar a conocer nuestra lectura feminista, que se articula en dos direcciones. Por un lado, exigimos que el 1 de mayo sea un día de lucha también feminista. Por otro, consideramos que es un día propicio para dar a conocer nuestra apuesta, es decir, las alianzas existentes entre los sujetos que trabajamos por una transformación social y económica.

En el llamamiento a la huelga general del 29 de marzo de 2012, La Marcha Mundial de Mujeres se adhirió a la mayoría sindical e hizo hincapié en que era un día de huelga no sólo en lo que al trabajo productivo remunerado se refiere, sino que también debía abarcar otros tipos de trabajo. Sacamos nuestros delantales a la calle para que se reconociera la legitimidad de los trabajos del hogar y cuidado, trabajos imprescindibles para la sostenibilidad de la vida. A su vez, urge ir más allá del mero reconocimiento. Necesitamos una revaloración social, política y económica de los trabajos del hogar y de los cuidados y un cuestionamiento de la actual reorganización social de los mismos, donde hombres y mujeres los asuman en igualdad de condiciones. Es responsabilidad de toda la sociedad. En este sentido, necesitamos traspasar la retórica de los discursos de la igualdad e ir a la raíz del problema para cuestionar tanto el modelo de educación como las políticas de conciliación que en vez de resolver refuerzan el rol de las mujeres como sostenedoras de la vida.

Como solemos decir las mujeres, trabajo nos sobra, lo que queremos es un empleo digno. A día de hoy las tareas del hogar siguen recayendo sobre nosotras. Es decir, seguimos recluidas en el mercado laboral no oficial, no regulado y no reconocido. Por lo que no es trabajo lo que necesitamos, sino una vida y un empleo de calidad que garantice a todas las mujeres autonomía, derechos y prestaciones.

Cuando hablamos del capitalismo neoliberal del siglo XXI, de las actuales transformaciones que sufre (el incremento del desempleo, la desaparición del tercer sector, la economía sumergida...), es decir, cuando hablamos de la clase trabajadora, ¿nos referimos sólo a los hombres blancos heterosexuales independientes de las fabricas? Creemos que es indispensable redefinir el concepto de clase trabajadora para que abarque todas aquellas actividades que posibilitan la riqueza, el valor, el prestigio, el cuidado y la sostenibilidad de la vida, sean estas remuneradas o no; porque el capitalismo y el heteropatriarcado están intrínsecamente interrelacionados. Ambos conforman un modelo insostenible basado en el dominio y explotación de las personas y del planeta y particularmente de los cuerpos de las

mujeres, operando de manera diferencial según el contexto y en base al origen, la clase, la edad, la opción sexual, la etnia, etc. Es fundamental cuestionar esta alianza heteropatriarcal – capitalista desde sus raíces traspasando las lógicas de las crisis inherentes del sistema capitalista.

La Marcha Mundial de Mujeres de Euskal Herria que reúne a mujeres tan diversas como migrantes, bolleras, transexuales, con diversidad funcional, trabajadoras asalariadas, baserritarras, precarias, desempleadas, de distintas edades, de distintas procedencias, de la ciudades, de los pueblos... cree en las alianzas entre distintos sujetos políticos para la construcción de un modelo de sociedad nuevo, que tenga como eje central los feminismos. Somos conscientes de nuestra diversidad y de nuestras diferencias. Pero tenemos claro que, en esta época de cambio es imprescindible aliarnos para liderar una fuerza conjunta de transformación hacia el feminismo. La libertad real difícilmente puede llegar de una perspectiva única o minoritaria. Por lo tanto, si queremos una transformación real, es necesario reconocer la diversidad de luchas y la interrelación entre ellas. Por eso mismo, todas juntas ondeamos nuestras banderas moradas, para que no sean simples trapos.

Es obvio que hoy en día nos encontramos ante un choque entre modelos de vida. Por un lado, el modelo de sociedad actual, caracterizado por la productividad, el capital, la competitividad, la infravaloración del trabajo de los cuidados y los recortes sangrientos. Y por otro lado, el imaginario de otro modelo posible, caracterizado por la solidaridad y la interdependencia, que priorice tanto el trabajo productivo como el reproductivo, que coloque la vida en el centro y que dé valor político, social y económicamente al trabajo de los cuidados. Nos encontramos por tanto, ante un momento de transición, en el que es importante activar las luchas y responsabilizarse colectivamente de las necesidades materiales, afectivas y los trabajos de cuidados. Mientras, seguiremos reflexionando y transformando nuestras prácticas cotidianas, para desde la práctica teorizar de manera conjunta en torno a los retos posibles a medio y largo plazo.

Porque el 1 de mayo necesitamos tanto sindicalismo como feminismo, porque en el choque entre la vida y el capital nosotras apostamos por una vida digna, ondeemos nuestras banderas moradas!!!

En abril de 2016,

LA PLATAFORMA DE LA MARCHA MUNDIAL DE EUSKAL HERRIA

